

KONTROL MOZIOA

Bidebietan kultur etxea sortzeari buruzkoa

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkeztu du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko apirilaren 19an Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Bidebieta auzoan ez dago kultur etxerik, eta horrelako ekipamendurik ez duen Donostiako auzo jendetsuena da. Auzotarrek gertuen dituzten kultur etxeak Casares (2 km), Larratxo (1,5 km) edota Larrotxene (1 km) dira. Jakina, kultur etxea auzoan bertan izatea bidebietarren eskari historikoa da.

2021eko aurrekontuen eztabaidan, EH Bilduk zuzenketa bat aurkeztu du Bidebietako Moneda baserrian kultur etxe bat moldatzeko, Kutxa Fundazioarekin hitzarmen bat eginda; duela 25 urte, alfabetatze ikastaroak, edota sexualitateari, yogari eta kultura aktiboari buruzkoak eskaini izan zituen Kutxaren Familia eta Gizarte Heziketa sailak. Tamalez, Udal Gobernuak ez du onartu proposamena.

Ekialdeko Barrutiaren 2020ko aurrekontuetan ere bi proposamen egin ziren Bidebieta auzoan kultur etxea sortzeko: bat EH Bilduk aurkeztua eta bestea, Herripe elkarteak. 2021eko aurrekontuetan, Barrutiko Udal batzordeak onartu egin du ekimen bat azter dadin Bidebieta auzoan kultur etxea sortzeko aukera; Kultura sailak emango duen erantzunaren zain gaude orain.

Garai berean, Bidebietako Auzo Sarean biltzen diren bizilagunek kanpaina bat abiatu dute Bidebietako kultur etxearen aldeko antolatzeko.

Apirileko batzordean, Udal Gobernuari galdetu genion aurreikuspenik egin duen Bidebieta auzoan kultur etxe bat sortzeko. Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen aztertu izan dutela aukera hori, Kontadores edo Eskola Horia bezalako eraikinak baliatzeko aukera dagoelako. Edonola, adierazi zuen inbertsioak behar dituzten beste auzo berri batzuk ere badaudela, eta egungo kultur etxe sarea ere inbertsio ugariaren beharrean dagoela. Beraz, ez zion baiezkorik erantzun, baina ezta ezekorik ere, gure taldeak egindako interpelazioari.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari abiatu dezala azterketa bat, aurten bertan, Bidebietan kultur etxe bat sortzeko aukerak zehazteko eta beharko diren baliabideen aurreikuspenak egiteko, eta txostena izatean, horren berri eman diezaiela udal taldeei.

2.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari antola dezala parte hartzeko prozesu bat Bidebietako auzotarrei zuzendua, kultur arloan auzotarrek dituzten kezkei eta beharrei erantzuteko.

Donostian, 2021eko maiatzaren 20an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia